

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresak prezio dinamikoak ditu, hau da, merkatuaren egoeraren arabera aldatzen dira. Zerbitzu ugari eskaintzeaz gain, beste enpresa batzuen prezioak kontuan izan behar ditugu. Prezioak eskatzen duten zerbitzuaren arabera aldatuko dira. Hau da, zerbitzu guztiek ez dituzte prezio eta baliabide berdinak izango.



Gure zerbitzuak sarritan erabiltzen dituzten bezeroei tarifa bereziak aplikatuko dizkiegu. Eskatzen duten zerbitzu motaren arabera gure instalazioak edo bezeroek eskatzen dizkiguten tokiak erabiliko ditugu. Gure lokala erabiltzearen kasuan prezioa 2-3€ igoko da. Igoera horrekin lortu nahi duguna pertsona gehiago kontratatzea zerbitzu barietatea handitzeko eta bezero kopurua handitzeko. Ordainketari buruz hitz eginez gero, gure enpresak bi ordainketa mota onartuko ditu. Alde batetik, bezeroek gure lokal fisikoan eskudirutan ordaintzeko aukera izango dute, ordainketa egina dagoela ordain agiria emango zaio balioztatzeko. Beste aldetik, bezeroek gure kontu korrontearen bidez ordaindu dezakete. Hurrengo taulan ikusten diren prezioak, prezio orokorrak dira. Prezio hauek, kostuak kontuan izanik ipini ditugu.

	ORDUAK	ZERBITZUA LOKALEAN	ZERBITZUA KALEAN
BEZEROA	1h _____ 12€ 3h _____ 36€ 7h _____ 84€ 9h _____ 108€	Prezioari 2€ gehiago	Hasierako prezioa
BEZERO TARIFADUNA K	3egun(27h) hilabete bakoitzean _____324€ 7egun(63h) hilabete bakoitzean _____756 € *Tarifak aldatu ditzakete ordu kopuruaren arabera	Prezioari 2€ gehiago	Hasierako prezioa

